

## Txirrindularitza

## «Pozik egoteko moduan gaude»

Arsenio Gonzalez gustura itzuli da Girotik, Kelmek emaitza onak lortu dituelako

Pello Aiestaran / Donostia

ARSENIO GONZALEZ-EK 52. postuan amaitu zuen Giroa, 37 urterekin. Oso aurrean ibiltzeko modurik ez zuen izan, baina bera oso gustura itzuli da etxera, taldeak inork uste baino hobeto funtzionatu zuelako. «Pozik egoteko da, bai. Kelme taldea ez da Banesto, ONCE eta hauek bezain indartsua, gu talde apalagoa gara, eta logikoa denez eginikoa-ekin gustura egoteko moduan gaude. Bi etapa, mendiko sailkapena eta taldekako sailkapena irabazi ditugu, eta ez dago batere gaizki».

Gainera, eginikoa meritua gehiago dauka teoriarik taldeko gizonik onenak, Hernan Buenahora kolonbiarrak, karrera utzi egin behar izan zuela kontuan hartuta. «Gure helburua zen Hernan Buenahora sailkapen nagusian lehen hamarretan sartzea, iaz bezala. Gero, etaparen bat irabazten saiatzea. Hernan erori egin zen, baina Marcos Serrano, Jose Luis Rubiera eta Chepe Gonzalezek baja hori ederki ordezkatu zuten».

Arsenio bera prestakuntza aldetik juxtu samar ailegatu zen Giroa, lehendik karrera gutxi egin zituelako. «Egia esan, oso gaizki ere ez naiz aritu. Agian kontua da, beste urte batzuetako mailarik ezin dudala jada eskratu, urteak ez baitira alferrik pasatzen. Baina nabaritu dut egunetik egunera hobetzen joan naizela, eta azken astean ibili nintzen hobekien. Askoz gehiago ere ez nuen espero, prestakuntza gehiegirik gabe joan bainintzen Italiara». Hasiera batean, Giroa joaterik ere ez zuen pentsatzen. «Nire helburuak Tourra eta Vuelta ziren, baina taldeak azken unean Kolonbiako Itzulira joan behar izan zuen, Giroa egin behar zuten batzuk hara joan ziren, eta teoriarik Giroa egin behar ez genuen beste batzuk Italiara joan ginen. Gero dena berraztertu egin behar izan dugu, baina azkenean erabaki dugu nik Tourra egitea pentsatuta zegoen bezala».

Giroa lehendik ere ezagutzen zuen Arsenio Gonzalezek. Mapei taldean zegoenetik batez ere, baina aurtengo ekitaldiak zertxobait harritu egin du. «Batez ere, txirrindulari askok etxerako bidea hartu behar izan zituelako.

**A**rsenio Gonzalez bilbotarra izan zen euskal ordezkari bakarra joan den igandean amaitu zen Giroan. Kelmekoa oso pozik itzuli da, taldeak emaitza bikainak lortu zituelako (bi etapa eta mendiko eta taldekako sailkapena irabazi zituzten) eta batez ere, bere burua gero eta hobeto ikusten duelako.



Arsenio Gonzalezek dioenez, egunetik egunera hobeto aritu da Giroan.

EGIN

Erorketak, gaixotasunak eta abar izan dira, eta horregatik printzipioz oso aurrean egon behar zuten txirrindulariak (Leblanc, Pantani, Ugrumov...) ez dira Milanera iritsi ere egin. Hori da aurten ikusi dudana gauzarik aipagarriena. Gainontzean, Giroa beti bezalakoa izan da, tranpa ugariarekin. Etapa oso arraroak egon dira, azken kilometroetan jaitsiera arriskutsuekin, gero zirkuito asko... Ez dakit, karrera berezia da, eta disputatu nahi duenak asko sofritu behar du, momenturo oso adi egon behar duelako. Nik esango nuke Giroa disputatzeko esprintetan sartzea ere beharrezkoa dela, bestela zerbait gertatzeko arriskua duzulako».

Ivan Gottik irabazi izana ez da ezuste handia izan. «Hasiera batean Tonkovek maglia arrosa eskuratu zuenean, bazirudien karrerak inolako emoziorik ez zuela edukiko, erabakita zegoelako. Baina gero Gotti agertu zen eta egia esan merezita irabazi du,

onena izan baita. Espektakulua ere berak jarri du gehienbat, Leblancekin batera».

**Azken denboraldia izango du ziurrenik** • Arsenio Gonzalez bere hamabosgarren denboraldia betetzen ari da profesionalean. 1983an egin zuen debuta, Kelme taldearekin, eta urte askoren ondoren, berriro Kelmera bueltatu da. Oso gustura aurkitzen da, aldaketak nabaritu dituen arren. «Beno, plangintza desberdina da. Aurreko urteetan Tony Romingerren plangintza egiten genuen, Vuelta [apirilean egiten zenean] eta Tourrari begira batez ere, eta beste karrerak prestaketa bezala hartzen genituen. Kelmek, karrera guztietarako dago ondo prestatutako jendea. Lehen denboraldi hasiera guztia Vuelta prestatzeko zen, baina orain karrera guztietara ondo joan beharra dago. Beharbada karrera gutxiago egiten dut, baina entrenamendua zehatzagoa da. Lan egiteko era ere desberdina da.

Mapein bakarrik karrera handiak hartzen ziren kontuan, eta Kelmek karrera txikitzen irabazten saiatu beharra dauka. Talde handia eta apalagoaren arteko filosofia desberdina da. Baina beno, garrantzitsuena da ondo egotea; ondo bazaude, edozein filosofiarara moldatzen zara».

Oraindik ez du ezer erabaki, baina baliteke aurtengoa izatea Arsenio Gonzalezaren azken denboraldia profesionalean. «Ez dakit zer egingo dudana. Ziurrenik hau izango da azkena, bai, adina ez delako alferrik pasatzen. Baina ez dut ezer planifikatu nahi, ez dut erabakirik hartu nahi oraindik. Bestela, agian pentsatuko nuke azken denboraldia izanda ez duela merezi gehiegi arriskatzeko eta sofritzeak, eta ez nintzateke beharrezko motibazioarekin arituko. Horregatik, azken erabakia urte amaiera arte atzeratuko dut, iaz egin bezala. Gero, nola nagoen ikusi, dena aztertu eta pentsatuko dut zer egin». X

## Abdujaparov berriro ere garaile Dauphinen

Alex Zullek etapa jokatu ahal izan zuen, hausdurarik ez duelako, eta tropelean sartu zen

Erredakzioa / Donostia

JAMOLIDINE ABDUJAPAROV uzbekiarrak Dauphine Libereko bere bigarren garaipena eskuratu zuen, Le Puy en Velay eta Beaune-de-Venise artean jokatutako hirugarren etapan. Ibilbide laua zeukan etapa honek, eta horregatik ohi bezala esprinterraren taldeak kontrolatu zuten guztia. Azken metroetara tropela bat eginda heldu zen, eta bi egun

lehenago egin bezala, Abdujaparov azkarrena izan zen. Bere atzetik, hau ere bi egun lehenago bezalaxe, Giovanni Lombardi italiarra sailkatu zen. Sailkapen nagusiari dagokionez, ez zen inolako aldaketarik egon, eta Viatxeslav Ekimov errusiarrak jarraitzen du lidergoan.

Aipatzekoa da Alex Zulle suitzarrak etapa jokatu egin zuela. Bezperan, Le Puy en Velayko helmugatik 500 metrora, eroriko

izugarria jasan zuen ONCE etxeko suitzarrak, baina zorionez ez dauka inolako hausdurarik. Horregatik, eta Manolo Saizek nahi bezala, atzo atera egin zen, eta tropelean amaitu zuen etapa. Gaur, faboritoek test garrantzitsua daukate, 45 kilometroko erlojupekoa jokatzen baita. Zulle gaurko probaren ondoren erretiratu egingo da, Suitzako Itzuliaren aurretik atsedean pixka bat hartu eta erorikotik osatzeko. X

## sailkapenak

## Etapa

1. J. Abdujaparov (Lotto) ..... 5.28.08
2. Giovanni Lombardi (Telekom) ..... d.b.
3. Damien Nazon (La Française) ..... d.b.
4. Philippe Gaumont (Cofidis) ..... d.b.
5. Adriano Baffi (US Postal) ..... d.b.

## Orokorra

1. Viatxeslav Ekimov (US Postal) . 16.03.18
2. Alex Zulle (ONCE) ..... 10era
3. Abraham Olano (Banesto) ..... 13ra
4. Laurent Brochard (Festina) ..... 15era
5. Michael Boogerd (Rabobank) ..... 17ra

## Pilota

Lizaso eta Auzmendi neurtuko dira gaur buruz buruko erremonte txapelketan

■ Lizaso da partidua honetako faboritua nagusia adituek diotenez

Aitor Ugalde / Donostia

ERREMONTEKO buruz buruko txapelketako hirugarren partidua jokatuko da gaur arratsaldean Galarretan. B multzoko bigarrena izango da, lehenengoan Lizasok 30-15 irabazi zion Odriozolari. Lizaso doneztebearra gaztea da, 24 urte ditu, eta goraka doan pilotaria da. Ziurrenik gaur ere bera aterako da faboritua. Aurrean izango duen Joseba Auzmendi segurarrak, ordea, ez dio erraztasunik emango. Sakea da Auzmendiren arma nagusietakoa.

Gaurko Galarretako jaialdiari (16:00) dagokionez, estelarrean Ezkurak hirukote indartsu bati (Arregi-Elizalde-Agerre) aurre egingo dio Etxaberekin batera.

**Elgetako torneo eta pilota aukeraketak** • Otaegi azpeitiarrak aurrera darrai Elgetako lau terdiko torneoan.

Asteartean, 22-5 irabazi zion Fuertes bizkaitarrari. Kadete mailan, Etxabek 18-1 irabazi zion Monreali, Retegik 18-6 Markinezi eta Etxanizek 18-3 Irazokiri. Bihar iluntzean (20:30) Sub'23 mailako finalzortzirenetako lau partidua jokatuko dira: Atxa Pinedoren aurka, Esain Galarzaren aurka, Larraia Idaiakezen aurka eta Murumendiaraz Garateren aurka.

Bestalde, profesional mailan, Euskadiko Txapelketako finalerdietarako pilota aukeraketak egingo dira. Egurdi-ko 12:00etan Labriten, Capellan-Arretzek eta Retegi II.a-Lasa III.ak aukeratu dituzte pilotak. Arratsaldeko 17:00etan Zarautzen, Alustiza-Armendarizek eta Unanue-Errandoneak. Oraindik erabaki gabe dago txapelketa honen finala non jokatuko den. Hasiera batean Eibarko Astelenan jokatuko zela esan zen, baina finalera heltzen diren bikoteen arabera, baliteke beste nonbait jokatzea. Datorren asteko asteburuan jokatuko da final hau, oraindik ez da eman ezagutzera larunbatean edo igandean jokatuko den.

Getarian, berriz, datorren igandean ospatuko da Pilotarien Batzarraren 12. ekitaldia. Aste honetan ekitaldi horrekin lotutako hainbat ekintza egiten ari dira Gipuzkoako herri horretan. Gaur arratsaldean (17:00) Aitor Elkoro eta Jokin Errasti pilotariak Getariako udaletxe ondoko pilotalekuan izango dira Getariako haurrekin jokatuko. X